



OMENALDIA LIZARDI'TAR KEPA'RI

OÑATIBIA'TAR YON

Errenderi'ko Lizardi, txistulari bikaña izan da beti. Eta aurten, jayoterria alaitzen berrogei ta amar urte betetzen ditulako, datorren igandean, illaren 27'an omenaldi biozkor bat eskeñiko diote bere erritarrek, erriko agintariak buru dirala.

Aspalditxotik ezaguten dut Lizardi, eta ezin aztutzekoa da, garai artan, 1928-1936 bitartean, Errenderi'ko lau gaztek osatzen zuten txistulari-talderik gorenekoa; Lizaso'tar Alejandro, Lizardi'tar Kepa, Errazkin'dar Eujenio ta Goñi'tar Ebaristo'k osatzen zuten txistu-laukote ura zan garaipenik aundienak lortzen zituen taldea Euskalerrri osoan.

Errenderi'ko txistu-sail ori nunai agertze utsa, gauz aundi bat izaten zan; eta eresaldiak ematera ta erromeriak alaitzera Euskalerrri'ko bazter guztietara joaten ziran, eta bereziki Bizkai, Gipuzkoa ta Naparru'ko jai nagusi guztietan bear-bearrezkoa bezela izaten zan Errenderi'ko lau ertilari oyen sayoa. Euren txistu jotzea arrigarrria zan, txistuaren zailtasunik aundienak errez menderatzen zituztela, eta lau txistulari trebe oyen ekintza bikaña izan zan, txistuaren iza-era goren gorenera jaso zuena. Lau gazte ayei entzun-da zenbat gazteengan ez zuten sortu txistua jotzen ikasteko zaletasun bizia! Eta neronek ere, eurei sarritan entzunaz, neronek bakarrik dakit txistua obeki jo al izateko zenbat ikasi nuen!

Esan bezela, Lizardi ta bere iru lagunak maiz irtetzen ziran Errenderi'tik, eta batez, 1928'an, Elizondo'ko jaietako biribilketa batean ari zirala, kamioi-tzar bat atzetik etorri-ta erdiko biak, Lizardi ta Errazkin jo ta lurrean zaurituak utzi zituen. Lizardi'ren txistua bi

pusk egiña gelditu zan, eta oraindik ederki aski oroitzen da nolako naigabea nabaitu zuen ainbeste maite zuen txistua bere eskuetan ondatua ikusi zuenean.

Gertaera artan geyenik zauritua Errazkin, silbote-jotzallea izan zan eta denbora luze batean oyeratua egon bearra izan zuen, bañan gertaera arrek ez zituen ikaratu lau gazteak, eta egunero-egunero Errazkiñ'en etxean bildu, zaurituaren bizkarpean burukia alik egokiena moldatu ta orrela egiten zituzten Bilbo'ko sariketa nagusirako egin bear zituzten sayoak, eta ez nolanaikoak; Gorosarri'ren «Iriyarena» musika zail ura bai zuten ikasi bearra nai-ta: nayecko zatia bezela. Eta beren alegin berezi oyek ez zitzaizkien alperrikakoak izan, bada, aurreko urtean bezela, lenengo saria irabazi zuten Euskalerrri'ko talderik onenen artean.

Errenderi'ko txistu-talde orren izena erruz zabaldu zan, jotzalle onak izatez gañera, txistu-talderik gazteena bai zan: laurak elkartu ziranean, 19, 18, 17 ta 16 urte besterik ez zituzten. Ortik atera kontuak nola sayatzen ziran beren ikas-lanean. Ikasbide ederra noiz-naiko gazteentzat, et batez ere txistu-bandak (laukoteak) ain urri ta exkax diran garai ontarako.

Errenderi'ko txistulari gazte ayen ekintza ederrak, izen aundia zabaldu zuen, eta orrela, Barcelona, Madrid eta Paris zear ibilli ondoren, 1934'an Mexico'ko euskaldunak deitu-ta, Lizaso ta Lizardi ango euskaldunak poztutzera joan ziran iru illabeterako; Mexico'n bizi ziran euskaldunen artean igaro zituzten egun ayek, zoragarrienak izan zitzaizkien. Ango Orkesta-Nacional'eko danbor

jotzallea inguratu zieten Centro Vasco'koak, eta, euskaldun talderik txikiena zegoen errietara joan arazten zituzten, poza ta zirrara, errimiña ta oroitzapenak berpiztuaz.

Ezin-da-obeki artu zituzten ango anai ayek, eta «Euskadi» izeneko berebil-kurpillak (gomazko kubiartak) egiten zituen lantegiko nagusi zan Urraza jaunak, egunero-egunero, bere txofer ta guzti, hotelaren atadian «Cadillac» eder bat jartzen zien, beren txistu-sayo ta eresaldiak eman bear zituzten tokietara joan zitezen. Ango iru illabeteko jardunaldi ura benetan bizkorgarria izan zan ango euskaldun guztientzat, jayaldi guztietan ari izatez gañera, egunero irratiz ere jarduten bai ziran.

Txistulari batentzat guztiz aipagarriak dira Lizardi'k bizi ta irabazi izan ditun sari ta gorralmenak, bañan, oraindik bere txistumaitasuna ain bizirik daukalako, Euskalerrri guztian oso txistulari gutxik bezela zaintzen dio erri bateko txistulariak bere gain dun eginkizunari: oiturazko joaldiak egiñaz gañera, jai goizetako kalez-kale «Zortzikoa» jotzeari ta illero-illero Erriko Etxeko arkupean erasaldi berezi bat emateari zintzoki eusten dio. Bereziki, azkeneko bi eginkizunak asko edertu ta goraltzen dute erri baten izaera.

Orregatik, orain, illaren 27'an, Errenderi'ko erria ta agintariekin batera, erriko elkarte geyenak baturik, ain ongi irabazitako omenaldia eskeñiko diote LIZARDI'TAR KEPA'ri. Eta zer esanik ez dago, gu ere biotzez eta gogotsu elkartuko gerala danokin, txistulari-egun pozgarri ortan.